



Arartekoaren 2015R-572-15 Ebazpena, 2015eko urriaren 16koa. Horren bidez, Beasaingo Udalarari gomendatzen dio zehapen-espeditente bat iraungitzat jo dezala, ebazpena emateko epea igaro delako.

Aurrekariak

1. Pertsona batek erakunde honetara jo du, Beasaingo Udalak bere aurka irekitako zehapen-espeditentearen berri emateko. Espeditentea hirigintzako araudiaren urraketa dela eta hasi da.

Kexagileak azaldutako gertaerak ondorengo hauek dira: 2014ko apirilaren 16an, Beasaingo Udalak zehapen-espeditentea ireki zuen Bista Alaiko hirigintzako jarduketan lurzoru ondare publikoen arloko araudia ustez hausteagatik (espeditentearen zk.: 2014IDB00022). 2014ko maiatzaren 9an, kexagileak alegazioak aurkeztu zituen, idazki baten bidez. Alkateak 2014ko maiatzaren 21ean emandako ebazpenaren bidez, Ministerio Fiskalari jakinarazi zitzaizkion gertaerak eta zehapen-prozedura eten egin zen 2014ko uztailaren 8ra arte. Egun hartan, ikerketa-eginbideak artxibatzea erabaki zen. Ondoren, kexagileak 2014ko irailaren 2ko Alkatearen ebazpena aipatu du, espeditentea bideratu zuen entitatearen aurka aurkeztutako ezespina onartu ez duena.

2015eko urtarrilaren 13an, kexagileak idazki bat bidali zion Alkateari, espeditentearen egoeraren berri izateko eta iraungi ote zen jakiteko.

2015eko otsailaren 21ean, berriro ere eskatu zuen espeditentea iraungitzea.

Kexagileak azaltzen duenez, espeditentea iraungitzeko eskaerari erantzunik jaso ez badu ere, 2015eko martxoaren 13an, Udal-idazkaritzaren txostena ikusi du eta bertan adierazten da espresuki zehapen-espeditentea iraungitzat jotzen dela, sei hilabete baino denbora gehiago igaro delako.

Hori guztia dela eta, kexagileak erakunde honetara jo du zehapen-espeditentea oraindik ere izapidetzen ari dela jakinarazteko eta iraungitzat jo eta artxiboan gorde beharko litzatekeela adierazteko.

2. Kexa hau izapidetzeko onartu ondoren, 2015eko martxoaren 31an, informazioa eskatu genion Beasaingo Udalarari kexan aipatutako kontuei buruz, eta batez ere, zehapen-espeditentearen inguruan eman behar den ebazpenari buruz. Informazio-eskaera bera berriro ere bidali genion 2015eko maiatzaren 20an.

Beasaingo egungo alkateak –2015eko ekainaren 18an– idazki bat helarazi digu, zera adierazita: *“ez zitzaien erantzunik eman horretarako Alkateak agindurik eman ez zuelako eta ezta ere ez zuen espeditentearen iraungitze-ebazpenik eman”*.



Jasotako informazioak ez du aipatzen iraungitzeko eskaerari Udalak eman dion erantzuna.

Informazio hori eta kexagileak azaldutako beste inguruabarrak ikusita, eta eduki guztiak aztertu ondoren, honako gogoeta hauek helarazi nahi genizkizuke:

Gogoetak

1. 2014ko apirilean irekitako zehapen-espeditentea iraungitzat jotzeko eskaerari erantzunik eza da kexa honen arrazoia.

Zehazki, kexak 2015eko otsailaren 21ean aurkeztutako idazkiarekin du zerikusia. Horren bidez, zera eskatu da: *"ebazpena eman dezan, zehapen-espeditentea iraungitzat jotzen duena"*, zehapen-ebazpena jakinarazi gabe sei hilabete baino denbora gehiago igaro baita, espeditentea irekitzeko erabakia hartu zenetik.

Udalaren erantzunean ez da ezer esan espeditentearen egoerari buruz, eta ez da aipatu iraungitzeko eskaerari erantzuna.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeak, bere 43.4 artikuluan, zehapen-ebazpena jakinarazteko, sei hilabeteko epea ezartzen du, baina zenbaketa eten egingo da, jardunbidea geldiarazten denean. Jardunbidea hasi eta hurrengo sei hilabeteko epean ebazpena jakinaraziko ez balitz, ebazpen hori iraungita geratuko litzateke administrazio-prozedurari buruzko araudiak ezartzen duen moduan eta bertan jasotzen diren ondorioekin.

Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 42.1 artikularekin bat:

*"Administrazioak **esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi behar du prozedura guztietan, prozedura horiek hasteko modua edozein dela ere.***

*Preskripzioa gertatu, eskubideari uko egin, **prozedura iraungi, edo eskaeran atzera eginez gero, baita prozeduraren xedea gerora desagertzen denean ere, gertatutako ingurumariak adieraztea, horixe izango da ebazpena, betiere, jzotako egitateak eta aplikatu daitezkeen arauak zehaztuta.***

Aztertzen ari garen kasuan, epea zehazteko hartu behar den *"dies a quo"* –espeditentearen hasiera– 2014ko apirilaren 16a izan da, eta kexagileak egun arte ez du jaso zehapen-ebazpenik.

Udal idazkaritzak 2015eko martxoaren 13an eginiko txosten juridikoak agerian utzi du sei hilabete baino denbora gehiago igaro dela.



Hala ere, nahiz eta denbora igaro, eta interesdunak berriazko eskaera aurkeztu arren, udalak ez du eman esanbidezko erantzunik.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, hurrengo gomendio hau eman nahi diogu Beasaingo Udalari:

GOMENDIOA

Kexagilearen eskaerari espresuki erantzun diezaiola, eta dagokion ebazpenaren bidez, iraungitzat jo dezala hirigintzako araudia hausteagatik hasitako zehapen-prozedura.